


Aretxabaleta,
1993ko ekainak 10

Aretxagazeta



Hauteskundeak

• Ekainaren 19an
euskararen eguna

• San Juan
bezpera

• Kirolak:
Udako
ikastaroak



Gotzon Garatek, Deustu Unibertsitateko Katedratikoak, Arrasate Press-en orain hurrengo leiru nauen ale baten esandakoa gogoratu, gure berbakeraren alde egin

**" Gure
berbakerak
ez dauka
besteen
inbidiarik"**

Eutsi bertakoari

gura nuke. Guk geuk baztertu eta desprestigiatu izan dugu behin baino gehiagotan gure euskera, gipuzkera eta euskera batua goraiapatuz.

Esate baterako, gipuzkera entzun izan dugu Atxabal eta inguruetakoa herrietako abadeen ahotan, bertakoak izan arren. Bestalde, azkenengo urteetan hor izan dugu euskera batuaren presentzia, beharrezkoa jakina, baina zenbaitetan bizkaierentzat kaltegarri izan dena. Gure berbakera, arestian aitatuak bi horien aldean zakarragoa dela entzun izan dugu inoiz. Makinatxo baten ustetan E.T. Ben agertzen direnek oso dotore egiten duten berba, sarritan hankasartze galantak egin arren.

Gustuak gustu, hala ere batzuk euskara batuan edo gipuzkeraz egiten dutenek hobeto egiten dutelakotan daude, guk txarto egiten dugulakoan azken finean. Ez da harritzekoa horratio, telebista; " Ene aburuz garrantzitsu arazoa da ezpairik gabe" edo antzerakorik entzun ondoren, hemengoren batek, honako hau esatea; "Zein dotore eta ondo berba egiten duten, gure aldean ederto!" piperrik be ulertu barik, bai...

Alde guztietan letxe, hemen ere badaude euskaldun traketak. Horrek ez du esan gura euskara kaskarra denik. Gure euskarak, ondo erabili ezker, ez du besteen inbidiarik, zuzentasun mailan ez

behintzat. Hor dugu, hain zuzen ere Gotzon Garatek dioena: " Euskal egiturari begira (alderdi fonikoak eta lexikoak ez dute horrenbesteko inportantziarik) euskararik onena bizkaieraz egiten dela esan behar da eta batez ere Mondragoi, Aretxabaleta, Eskoriatza, Aramaio, Oñati eta horien inguruetan".

OHARRA: Gustora idatziko nukkeen gure azpi euskalkian, baina idaztaraurik ez dugula eta euskera batuan idatzu behar. Badira, edozein modutan, lan horretan dabilzanak; laster bukatuko ahal dute!.

**Mirian
Txintxurreta,
Irakaslea**

Aretxagazeta


Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila
Zuzendaria: Jokin Antxia, **Erredakzio-kontseilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Jon Antxia, Iñigo San Juan, Mirian Txintxurreta, Rosa Mari Uriarte eta Jon Iñaki Izarzelai. **Publizitate eta erredakzio arduradunak:** Goretti Ayastuy eta Ana Eriz **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, A. Galdaera, T. Aragones, R. Velasco, J. M. Torres, E. Vazquez, Beinke, Udala. **Inprimategia:** Eguzkigraf **Tirada: 2.500 ale.** Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da.

Zelan joan zaizue hauteskunde eguna?



Rosario Galdos
(Langilea)

Oso ondo, ez dugu jende multzo handirik izan, poliki-poliki etorri da jendea. Ez dugu inongo arazorik izan.




Andoni Urzelai
(Langabetua)

Oso ondo. Lehenengo aldia da egoten naizena eta ez dakit jende asko edo gutxi egon den.



Itziar Arana
(Langilea)

Oso ondo joan da. Jende aldetik ere ez dugu arazorik izan.



Jose Agustin Bengoa
(Langilea)

Oso ondo, jende aldetik ere nahiko ondo. Ez zaigu ezer espezialik gertatu.

KARTAK

"Adibidez"

Arrasaten makromu- gida bat egongo da, kul- tura eta HIESarekiko elkartasuna indartze as- moz.

Ilusioz beterik egiten duzuen "hori" jende orori erakustea da hel- burua: margolan, eskul- tura, malabarak, kantua, dantza, tailagintza, mu- sika... zigilu edo txanpon bilduma hori; edo zerga- tik ez, zure txakur horrek ere parte hartu leike li- hiaketan.

Edozein "dispara- tek" izan leikelarik bere lekua. Luza egiozu eskua HIESari, bide batez izu- garri hiper ongi erabat liluraturik pasako dugu- larik. Deitu eiguazu 792699 tnora.

HIES EKIMENA

Loramendi

Fuerte samar egin nuen berba Loramendi lkastolako batzarrean. Gero eta gizarte indibi- dualistago honetan, he- rria antolatzea eta ini- ziatiba soziala bultzatzea funtsezkoa iruditzen zait, eta estatuari-adminis- trazioari espazio (eta kontrol) gehiago ematea akats bat iruditzen zait. Gai ideologiko sakona da, eta ez hemen ezta- baidatzekoa.

Hala ere, nahiz eta erabakia akats bat irudi- tu, aitortzen dut 'txapu- za' hitza sobran zegoela. Gainera, erabakia har- tuta dagoenez, uste dut orain eskola integratzai- le majo bat lortzeko jarri behar direla denon inda- rrak.

Jarraiketan dut pentsetan pena litzate- keela euskararen alde sortutako indar batek lortutako altxorra (ia 600 bazkide, esperientzia, ondarea) orain betiko desmobilizatzea. Lora- mendi izan dena euskal- gintzarako eta herrirako aprobetxetan asmatu behar dugu orain. Poli- tikoek eragindako 'pu- bliko-pribatu' eztabaidan izandako arazoak ahaz- tuta, hau da inportan- teena: eskolan eta esko- latik kanpo herria eus- kalduntzeko lanean ados jarraitzea denok.

Jon.S.

OHARRA

San Juanak di- rela eta, inprimate- giak oporrak hart- zen dituelako, Are- txagazetako hu- rrengo alea uztai- lak 1ean argitara- tuko da.

Barkatu era- gozpenak. Bereha- la gatoz.

Eskerrikasko.



Tril, emakume taldea

Maiatzaren 27an, arratsaldeko 2,45tan, Uratz-Alde Elkartearen Beinkeko emakume taldearen aurkezpena izan zen. Talde honek Tril izena dauka eta izen horrek topo egin esan gura du. Aurkezpenean Tril taldeko 8 partaide izan ziren taldearen helburu eta ekintzak azaltzen.

Taldea A.E.D ko emakume taldearen eredu jarraituz sortu da. Arrasateko taldea ikusirik, animatu eta Atxabaltan ere horrelako talde bat martxan jartzea pentsatu zuten. Talde honen helburua euskera erabiltzea eta zabaltzea da. Askotan

euskaraz jakin arren erderara jotzen da eta talde honen antolatutako ekintzen bitartez euskera zabaldu eta erderarako joera kendu gura da.

Edozein sartu daiteke talde honetan, ateak denendako daude zabalik, baita gizonendako ere.

Antolatuko diren ekintzak era guztietakoak izango dira: hitzaldiak, ikastaroak eta abar. Lehenengoa ekainaren 9ko hitzaldia izan zen, estetizien batek eguzkiak azalean daukan eraginari buruz jardun zuen. Gero irailean beste ekintza batzuk izango dira. Beraz gura duzuen guztiondako zabalik dago Tril taldea eta animatu zaitezte.



Udaleku irekiak

Azken urteotan bezala, Atxabaltako Udal Kultura Batzordeak Udaleku irekiak antolatu ditu uztaileko, herriko ume guztiendako. Gizartean bizitzen eta euren artean harreman onak izaten ikas dezaten, euskalduntze prozesuan sakontzea eta umeak dibertitzea izango lirateke udaleku hauen helburuetariko batzuk.

Udalekuetan 4-14 urte bitarteko edozein atxabaltarrek hartu dezake parte. Apuntetako epea ekainaren 18an bukatuko da. Apuntatu gura duenak Kultur-Etxetik pasatu beharko du eguerdiko 12etatik ordubatak arte eta arrat-

saldeko 4,30etatik 5,30ak arte, 1.500 pza ordainduz.

Aurten udalekuetan txanda bakar bat egongo da uztailearen 1etik 23ra, goizeko 10etatik 12,30ak arte eta 3retatik 5,30ak arte. Txanda horretan 400 plaza egongo dira, taldeak adinaren arabera banatuko dira, beti eskola eta eredu desberdinetako haurrak nahastuz. Ume guztiei aseguru aingongo zaie, eta udalekuaren ordutegi barruan dauden bitartean antolatzaileen ardurapean egongo dira.

Guzti horretarako informazio gehiago gura duenak Kultur-Etxera jo dezake.



**Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria**



**Kultura sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria**

**SAGASTA
ELEKTRIZITATEA**

Elektrogailuak
Elektra - instalakuntzak

Otalora, 14
☎ 79 16 10



NOVEDADES

FELI

MODAN DAGOEN GUZTIA

Iparagirre, 4
Tfnoa: 79 21 24
ARETXABALET



San Juan bezpera 93

Atxabaltan ekainaren 23a, San Juan bezpera, egun berezia izan da betidanik, urteko gabarik moztzena eta majikoena da eta.

Egun horretako jaiari arratsaldeko 7etan izango den japoniar bonben jaurtiketarekin emango zaio hasiera. Arratsaldeko 7.30etan Atxabaltako txistulari eta buruhaundiekin kalejira izango da. 8etan,

Loramendi Dantza Taldearen eskutik dantzak izango dira Herriko plazan.

Gero, gabeko 10etan Saltsamaltsa taldearekin dantzaldia izango da Herriko Plazan. 10.30etan San Juan sua ixotuko da, berori da egun horretako ekintzarik inportanteena.

Bukatzeko, datorren urteko Santa Ageda mutillek tantaia jasoko dute.

UEUko ikastaroetarako dirulaguntzak

Udako Euskal Unibertsitaterako ikastaroetan parte hartu gura dutenendako dirulaguntzak eman-go ditu Aretxabaletako Udalak.

Dirulaguntza horiek ikasle eta langabetuei daude zuzenduta. Interesatuak Euskara Zerbitzura jo dezakete ekainaren 22a baino lehen.

Lanbide hastapena

Lanbide hastapenak datorren ikasturterako honako egitarau hau prestatu du:

1. aukeran elektrizitatea, haroztegia eta mekanika daude eta 2. aukeran sukaldaritza, artisautza eta ofimatika, 90 ordukoak

Egitaraua eskolan jarraitu gura edo utzi duten gazteei zuzenduta dago. Bete behar diren balditzak honako hauek dira: Deba Garaiko udalerriren batean erroldatuta egotea, langabetua izatea eta 16 edo 17 urte izatea.

Egitarau honen helburuak hauexek dira: gazteak makinaria eta material desberdinen erabileran trebatzea lan merkatuan sartu nahiz gaikuntza ikastaroetan onartzeko. Gazteak dituzten gaitasunak garatzen lagunduko dien oinarriko prestakuntzak ematea.

Aurreizenematea ekainaren 1etik uztailaren 15era bitartean izango da Zaldibar Ikastetxean eta matrikulazioa irailan udaltxeetan.

• Ikasketengatik, soldadutzara joateko atzerapena eskatzeko asmoa duten mutil guztiei jakinarazten zaie, uztailaren 23a baino lehen Udal bulegoetatik pasa daitezela honako dokumentazioarekin:
N.A.Naren fotokopia, ikasketa agiria eta kartazal bat eta seilua.

• Eskoriatza-ko Kultur Etxeak merenge ikastaroa antolatu du. Datorren uztailaren 6tik 27ra bitartean izango da ikastaroa eta izena ekainaren 23a baino lehen eman beharko da Kultur Etxean. Prezioa 1.000 ptakoa da.

**EXPRESS
AKEITEGIA**

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43

ANDONI ALTUBE

**ELEKTRA
INSTALAKUNTZAK**


Durana, 36
☎ 79 10 60



MAPFRE
Aseguroak

Angel Zubillaga
Aseguruen ordezkaria

Errekabarren, 3 20550 ARETXABALETA
Telf. 77 11 76



Deba erreka- bideratzea

Garraio eta Herri Lan Ministeritzako lan hidraulikoko zuzendaritzak, Atxabaltan Deba erreka-
n tarte bat bideratze-
ko proiektua onartu du.

Proiektua honetan datza: Deba ibaia, Atxabaltako hego aldetik pasetan den 475 metrotan eta 12 metroko zabaleran erregulatzea.

Bazter barrien defentsa ormigoiaz egingo da eta altuera lekuaren arabera desberdina izango da.


3 zubi txiki botako dira eta horien ordez bes-

te bat egingo da, zubi hori ormigoizkoa eta 10 metroko altuerakoa izango da.

Horrek oinezkoentzako egurrezko pasabide bi izango ditu 3,2 zabalera-
koak.

Bukatze-
ko, urbanizazioa eta lan horien eragina izango duten zerbitzuak konponduko dira.

Proiektuak 190 miloi inguruko aurrekontua dauka. %75a M.P.O. Tak finantziatuko du eta %25a Gipuzkoako Foru Aldundiak.



Rafa Zamora joan zen astean, tximeleta handi batekin agertu zitzaigun Aretxagazetan. Bera kalea garbitzen ari zela tximeleta horrekin topo egin zuen eta neurtzen hasi zenean 15,5 zmtituela konturatu zen. Hau ez da Gipuzkoan agertu den bakarra, Aranzadi Zientzia Elkarteak esan zigunez, asko dira aste horretan agertutako tximeleta erraldoiak

Kontu laburren lehiaketa

Eskoriatzako Itxaropen taldeak, kontu laburren lehiaketa antolatu du. Gaia ekologia bizi osasungarria izango da. Parte hartu ahal izateko gutxienez 2 orrialde idatzi beharko dira.

2 mailatan banatuta egongo da: 1. maila 10 urtetik 13 urte arte, eta

2. maila 14 urtetik 16 urterarte.

Ipuinak euskaraz eta erderaz aurkeztu daitetzke. Epea ekainaren 23an bukatuko da, Eskoriatzako Kultur Etxera eroan beharko dira lanak. Sari banaketa ekainaren 29an arratsaldeko 6retan egingo da.

I O S U
URDAITEGIA

MITARTE, 1 eta
GORBEA, 8

DORLETA
TABERNA

Loramendi 10
☎ 79 94 15

JAUREGI
OKINDEGIA
(Panaderia)

Otalora, 10
☎ 79 57 47

MATIKUA
TABERNA

Azatza auzoan
☎ 79 16 68
ARETXABAETA



Ekainaren 19an euskeraren eguna

Urteroko ohitura jarraituz, BEINKE Elkarteak ekainaren 19rako euskeraren eguna antolatatu du.

Jaiak egun guztian iraungo du. Eguerdiari herriari publizitatea egiterakoan euskararen erabilera zenbatekoa den eta zela erabiltzen den ikusteko erakusketa egingo da Durana Kallean.

Aurtengo nobedaderik aipagarriena: bazkalostean, 4,30etan, O.H. Oko haur guztien dako Herriko plazan Martin Agirre pastoralak ikusteko aukera izango dugu.

Pastoralaren ostean

buruhaundiak eta trikitiliak ibiliko dira kalez kale.

Ordu berean Berri-Zahar taldekoek antolatutako partxis lehiaketaren finala jokatu da plazako arkupetan.

Gabean Iturrigorri frontoian herri afaria egingo da eta afalostean erromeria.

Antolatzaileek esan digutenez, afarira joan gura duenak Beinken edo Arlutz tabernan eman dezake izena eta baita txartela hartu ere.

Ea animetan zareten afarirako eta egun alaia pasetan laguntzen dugun guztiok. Euskaraz, jakina.

Turismoa indartzeko plana

Joan den ekainaren 4ean Mankomunitatean egin zen prentsaurrekoan gure inguruan turismoa garatzeko planaren aurkezpena egin zen. Prentsaurrekoan Jose Maria Loiti, Lehendakaria, Lurdes Romero, Turismo teknikaria eta Koldo Azkotia, Enplegu teknikaria, izan ziren. 1993-94ko heziketa profesionaleko programari buruz jardun zuten. Horietaz gain, gai inportantetzat, Deba Garaiko turismo sektorearen garapena izan zuten.

1992ko irailean Udal desberdinetako Kultura ordezkariak turismo gaiaren inguruan herri bakoitzeko proiektuak azaldu zituzten eta gaia sakontzeko interesa ikusi zuten.

Horrela, Turismo Sektorearen garapenaren plan integrala lantzerari ekin zitzaion. Plana zati bitan banatzen da:

- Turismoa garatzeko proposamenen ikerketa eta elaborazioa.

- Epe motzeko ekin-tzak. Honako hauek dira garrantzitsuenak:

herrialdearen identitatearen definizioa, bi-deetako seinaleen eta leku interesgarrien hobekuntza, informaziorako materialen argitalpena, bisitarien harrerak eta azpiegituren garapena, leku istorikoen berreskuraketa eta artisautzaren eta produktu tradizionalen promozioa.

Epe luzerako proiektuak Foru Aldundiko Ekonomia Sailak finantziatuko ditu. 1994eko urtarrilerako bukatuta egotea espero da.

Programa horren helburuak honako hauek dira:

herrialdearen identitatea definitu eta komunikazioak garatu, oferta historikoak eta euren zabalkundea garatu eta ingurua berreskuratu, harrerak hobetzeko ekintzak aurrera eroan eta sektorearen garapena lortzeko pautak zehaztu.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

Pasatu dira 1993ko hauteskundeak. Aspalditxoan jende guztiak ahoan izan duen data ekainaren 6a izan da. Pasatu da egun hori eta orain botazioaren emaitzak aztertu eta ondorioak atarateko ordua heldu da.

Gure herrian honako hauek izan dira emaitzak: Atxabaltan 3.545 pertsonak eman dute euren botua, 4.924tik. Domekan egin ziren hauteskundeetako botuak horrela banatu dira: 1. H.B 925 botuz, 2. EAJ 724z, 3. PSE-EE 714z, 4. EA-EUE 677z, ondoren PP 197z, IU 149z, CDS

11 botuz eta azkenik beste batzuk 68 botuz.







89ko hauteskundeak kontutan hartuta, alderdi batzuk gora egin dute eta beste batzuk jaitsi. Gehien igo duen alderdia PSE-EE izan da 151 botu gehiagorekin, ondoren EAJ 148 gehiagorekin, PP 116 gehiagorekin, IU 75 gehiagorekin eta azkenik H.B 34 gehiagorekin. E.A-EUEK, barriz, 156 boturen jaitsiera euki du.

Atxabaltan 7 mahai izan ziren, eta horreitako bakoitzean izandako botu kopurua jaso dugu eta 1989koekin konparatu, koadroan ikusi dezakezuenek. Mahaiak

kalea banatzen dira, eta banaketa honako hau izan zen: 1A: Bedarreta, Elkano, Guridi, Iparraguirre, Larrin plaza, Murubide, Otalora, Santa Kurtz eta Sarasate. Abizenak alfabetikoki hartuta Atik Kra. Mahai horretako lehendakaria Rosario Galdos izan zen. 1B: Kale berak baina abizenak Itik Zrainokoak. Mahaiko lehendakaria Andoni Urzelai izan zen. 2A: Andra Mari, Basabe, Durana, Errekararren, Geltoki Plaza, Herriko Plaza, Lausita, eta Mitarte kaleak. Abizenak Atik Kra bitartekoak. Mahai horretako lehendakaria Jose Mari Aperri-

bai. 2Ban kale berak, abizenak Ltik Zra bitartekoak. Mahai horretako lehendakaria Pablo Txintxurreta izan zen. 3A: Araba Iblibidea, Aralar Kalea, Basabe Poligonoa, Bizkaia, Gipuzkoa Plaza, Gorbea, Loramendi, Nafarroa eta Zاراia. Abizenak Atik Krakoak. Mahai horretako lehendakaria Itziar Arana izan zen. 3B kale berberak Ktik Zra bitartekoak eta lehendakaria Julio Markaide. Eta azkenik 4. mahaiaren auzoetakoak eta Solohandi eta Bainuetxeoak. Mahai horretako lehendakaria Jose Agustin Bengoa izan zen.

1993ko hauteskundearen emaitzak

MAHAIK							BESTE BATZUK
1A	95 110	9 23	139 99	136 134	86 113	10 23	17 8
1B	82 109	7 30	120 77	91 90	97 119	8 21	27 8
2A	119 164	16 50	149 148	156 175	74 99	4 21	60 11
2B	78 93	26 43	113 91	97 118	72 108	13 38	26 7
3A	87 101	12 27	127 105	142 153	113 141	18 26	39 12
3B	51 81	8 22	109 92	109 109	90 101	18 20	54 15
4	63 66	3 2	76 65	160 146	31 33	3 -	11 7
DENERA	575 724	81 197	833 677	891 925	563 714	74 149	214 68

Negritaz: 1993ko datuak

Normal: 1989ko datuak

Hauteskundeen ondoren zein da zuen balorazio ?



EA-EUE

Atxabaltan, Gizuzkoan eta Euskadin moduan, abertzaleok atzerakada izan dugu. Estatuan dauden alderdi nagusien, PSOE eta PPre, telebista pribatu eta publikoen gehiegizko erabilera eta eztabaidak monopolizatzearen ondorioz izan da atzerakada hori. Grafikoki

esateagatik, batzuk kanpaina kalean egiten genbiltzan bitartean, gure mezua zabaltzen, Felipe eta Aznar denon etxeetan sartu ziren telebistaren bitartez. Irabazleak zorionduz eta laguntza eskertzeaz gain, honek abertzaleon munduan erreflexionatzen gaitu eta ahal bada lan gehiago egitera abertzaletasunaren alde eta gura dugun aurrerapenaren alde, hurrengo hauteskundeetan gauzak bere onera etorriko direlako ustean.



EAJ

Hauteskunde haue-tan jaso dituen emaitzen, baloraketa positiboaren egiten du Aretxabale-tako EAJ/PNVek. Jasotako botoek nabarmenki gairatzen dituzte aurreko hauteskunde orokortakoak eta EAJ/PNV Aretxabale-tako bigarren indar politikoko bezala kokatzen dute Herri Bata-

sunaren atzetik, gure partiduan konfidantza berreskuraketa bat azalduz.

Jasotako emaitzak gure herriaren alde lan egiten jarraitzea animatzen gaitu eta horregatik bihotzez eskertzen dugu jasotako laguntza. Emaitza orokorrak ikusita, badirudi inoiz baino gehiago azterketa kritiko bat egitea behar dela abertzaletasun demokratikoaren zatiketa eta desadostasunak gairatuz, gure identitate eta oparitasuna ziurtatuko duen etorkizuna bideratu ahal izateko.



HB


Aretxabale-tako emaitzak ikusi eta gero, HERRI BATASUNAtik egiten dugun balorazio oso ona eta pozgarria izan behar da, kontutan harturik Atxabaltan lehen indarra bezala geratu gaitela eta gainera alde handiaz.

Beste alderdien eta komunikabideen eraso eta gezurren gainetik, Atxabaltarrekin, berriz ere,

HBren proposamenak (amnistia, ustelkeriaren aurkako borroka,...) ondo ulertu eta onartu dituztela nabarmena izan da.

Emaitza hauek, hala ere, puntu beltz bat ere eskaini digute, hain zuzen ere boto Espainolistak izan duen igoera kezkarria.

Azkenik, eta urjenti-ziazko balorazio hau bukatu aurretik, gure esker beroenak Iñaki Iturri eta Kepa Urrea presoien euren borrokatik eta bereziki, kanpaina lanetan eskaini duten laguntzagatik, eta, bestalde, garaipen hau beraiei eskaini nahi diegu.



PSEE-EE

Lerro hauetatik, PSEE-Engan konfidantza jarri duten Atxabaltako biztanleei eskerrak eman gura dizkiegu.

Sozialistok lortutako emaitzak oso onak izan dira eta herriaren onerako izango dira, alderdian bide bezala sortu genuen gizarte eraldatzeko tresna moduan eta ez bera helburu bezala.

Arazoi horregatik

lanean gogorri jarraituko dugu atxabaltar guztiok gure oinarriko beharrak bete ditzagun (etxebizitzak, lana, ...) eta batzuk eta besteak era desberdinean pentsatu eta jokatuz dezagun errespeta eta askatasunez.

Gainera, Aretxabale-tako ideia ezkeriarren ordezkatuko eta koordinatuko dituen politika sortu gura dugu. Horrekin batera bizitzaren kontzepzio progresistaren defentsa egin gura dugu; bai sektore politikoan eta baita ezker-tiarren balore ideologikoan ere. Horregatik IUK lortutako emaitzen gainetik ere pozten gara.

Denok dakigu hauteskundeak zer diren. Alde guztietan gauza beraren gainean jardun dute komunikabideek. Asko eta asko egun hori noiz pasatuko zain egongo ziren. Pasatu da eguna eta orain botazioen ondorioak dira alde guztietan dabilen notizia. Guk ere hauteskondeei buruz zerbaiz gehiago jakin gura genuen. Hauteskunde eguna zela antolatzen den jakiteko Atxabaltako Udaleko idazkaria den Xabier Mendizabalekin egon gara.



Hauteskundeetan Udalak ere badauzka bere ardurak

• Mahaikideak zela aukeratzen dira?

• Zozketaren bidez, hauteskundeak konbokatuta eta hortik 20 egunen barruan zozketa egiten da. Zozketa horretan mahaikideak eta mahaiburua aukeratzen dira. Ondoren alegatze-ko 10 bat egun izaten

dira eta alegatu gura duenak Bergarara joan behar du. Ez da edozein alegazio onartzen, adibidez aurten ikasketetan azterketa arazoak onartu dira, lana izatea, barriz, ez da onartu.

• Botazioetako urnak eta kabinak non egoten dira?

• Udaletxeko ganbaran egoten dira. Horiek kolokatzeko eguakotx arratsaldean hasten dira Udaleko lan zerbitzuetakoak, klaseak bukatuta gero.

• Zelan daude zati-tuta mahaiaik?

• Auzoka. Baserri aldeko guztiak alde batean

eta herriko auzoak ere zonaka banatzen dira.

• Mahai bakoitzean zenbat urna egoten dira?

• Mahai bakoitzean oraingoan bi egongo dira bata senaturako eta beste kongresurako. Beraz denera 14 kutxa egongo dira.

• Zeintzuk dira mahaian dauden egin beharrak?


• Mahaikideek datu pertsonalak hartu behar dituzte eta zerrendetan daukaten zenbakia ipini behar dute. Mahai-buruak botuak hartu, izen eta abizenak jaso eta botuak kutxara sartu behar dituzte.

• Eguna bukatzean zela egiten da botu kontakteta?

• Hori da eguneko gauza latzena. Mahai bakoitzeko botuak konstatzen dira. Batzuetan arazoak izaten dira batzuetan nulo dena beste batzuetan balio duelako.

Ondoren espediente betetzen dute, agertu diren izenak eman, mahaiburua zein eta abar. Gero konstituzio akta bete behar da.

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA



Durana 11 Aretxabaleta
Fernando Enparantza, Esko riatza
Tfnoa: 79 21 68

UDA-IKASTAROA

- Ekainaren 28tik uztailaren 23rarte, 5 orduz goizez maila guztiak.
- Matrikulaldia ekainaren 7tik zabalik, kostua 6.000 pzta.
- Bulego ordutegia: goizez 9etatik 12.30etara eta arratsalde 3retatik 7retara.

Urtero moduan, aurten ere udako kirol iharduerak antolatu ditu Aretxabale-tako Udal Kultura Batzordeak. Horretarako 9 ekintza desberdin antolatu dituzte: espeleologia, piraguismo, eskalada, mountainbike, umeentzako ping-pong eta squash txapelketa, igeriketa, xakea, badminton eta tenisa.

Ekintza guzti horiek uztailean zehar egingo dira, eta partehartzaile guztiak saria jasoko dute. Beraz, uda desberdina pasatu gura duzuen gazte eta helduak, animatu zaitezte denendako aukera ederra dago eta.

Piraguismo ikastaroak bi txandatan egingo dira,



U.D.Ako taldeek bukatu dute denboraldia. U.D.Ako talde nagusiak denboraldi ona egin ez arren hasieran, azkenean sailkapenean erdialdean geratu ziren. Lehenengo Errejonalekoek, azken partiduan llinxta taldeari irabazita gero maila berean jarraituko dute, beraz euren helburua lortu zuten. Neskak azkenik 0 eta 1 galduta gero Gipuzkoako Koparen finalerdietan geratu ziren. Hori denori ospatzeko eguakotx gabeen afaria euki zuten Matikua jate-txean.

Datorren ekainaren 12an, arratsaldeko 4etan bizikleta festa egingo da Donostiako belodromoan. Sarrera debalde izango da eta joan gura duenak sarrerak bizikleta dendetan eukiko ditu.

Atxabaltan ere uda desberdina

uztailaren 1etik 15era eta 16tik 30era. 2.000 pzta ordaindu beharko da eta derrigorrezkoa da igeri egiten jakitea.

Espeleologia uztailaren 7, 10, 17 eta 27an egingo da, eta 1.000 pzta ordaindu beharko da.

Mountainbike ere uztailean zehar egingo da eta debalde izango da.

Igeriketa uztailaren 5etik 23ra arte luzatuko da. 6etatik 8,30ak arte nagusiendako eta 3retatik 6ak arte haurrentzako. 1.500 pzta ordainduko dute Kirol-Etxeko bazkide direnek eta 2.000 pzta bazkide ez direnek.

Badminton eta tenisa bi txandatan banatuko dira. Badmintonaren lehenengo txanda uztailaren 5etik 16ra arte izango da eta bigarrena 19tik 30era. Orduak 9etatik 10etara eta 10etatik 11etara. Tenisean ere txanda bi egongo dira, baina ordu desberdinetan: 11etatik 12etara eta 12etatik 1etara. Bi ikastaro horietan apuntetako 1.000 pezetako kuota ordaindu behar da.

Aurten ekintza desberdin bat ere sartu dute antolatzaileek, xakea. Ekintza hau 2 txandatan banatu dute, uztailaren 5etik 16era eta uztailaren 19tik 30era.

Goizean edo arratsaldean 2 ordu egunero. Debalde izango da.

Baina denak ez dira ikastaroak, antolatzaileak umeentzako ping-pong eta squash txapelketak ere antolatu dituzte. Txapelketak dohainik izango dira.

Kirol iharduera horietan izen emateko azken eguna ekainaren 25a izango da, Kultur - Etxean 12etatik ordu batetara goizean eta arratsaldean 4etatik 6ak arte.

Informazio zehatzagoa gura duenak telefono honetara deitu dezake: 79 01 05.

Altubetarrak eta musika

Ondo abesten duenei, txori izenak jartzen zaizkie izen-orde bezala, giza-naturaren arteko paralelismo sinbolikoa elkar-tu nahian edo. Atxabaltan etziren horraino heldu eta azken ehun urtetan izan dugun klasiko abeslari onenari "Txindurri" jarri zioten. Cristobal Altube Vergara, Atxabaltan jaio zen 1897ko uztailaren 10ean, goizeko ordu batetan. Aita, Felix, atxabaltar zerrailgin horietako bat zen, eta ama berriz bergararra. Artzain lanetan ibili zen gure Cristobal 10 urterate. Arrasateko Unión Cerrajeran lanean aritu ondoren soldadu joatea tokatu zitzaion eta bertan Alfonso XIII. a Erregearen aurrean abesteko aukera izan zuen. 1921ean kantu ikasketak hasi zituen.

Frakaso txiki batzuk izanagatik etzuen etsi eta Grani irakaslearen eskutik aurrera egin zuen. Maltako Teatro Realean eman zuen bere lehen kontzertua Aida eta Sanson operak abestuz. Handik aurrera Milan, Roma, New York, Paris, Viena eta beste hamaika lekutatik arrakastatsu aterare. Bere prestakuntzaren lekuko, Madrilera Musika Kontserbatorioko Kantu Liriko-Dramatikoko Katedra lortu zuen. Eta guzti hau, gaurko beste Urkia Altube izeneko abeslari on batekin lotzeko. Gaur egungo hau oraintxe ari da Donostiako Kontserbatorioko kantu ikasketak burutzen, berdineko Sailean. Lerro hauek bultzada gisa, bere homonimoaren maila lor dezan guttinez, eta eztei eguna hurbildu zaiolako Zorionak.

A. Antxia
I. Urreta



C. Altube

ERRETRATUAREKIN JOLASEAN

• Erantzun guztiak ARETXAGAZETAREN bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datorren astelekuaren eguakotxa baino lehen.


• Asmetan dutenen artean K-2 espedizioko txandal-fraka zozketatuko da.

Hona hemen aste honetako galdera:

Non dago argazkian ageri den atea?

(Aurreko zenbakiko erantzuna: Galartzako hilerria).

Aurreko lehiaketaren irabazlea GURUTZE MUJIKA. Zorionak.



Erantzuna:.....

Izen-abizenak:.....

Helbidea:.....

Tfnoa:.....

Menditik pastoralera



J.J. Aretxaga

Atxabaltan daukagun talderik orijinaletaiko bat da **Berri-Zahar** taldea, Beinkeren barruan dagoen euskaldun barrien taldea. Talde honek lehiaketa bat antolatu du herriko euskaldun barrien artean bikotekajokaketako. Joku honen irabazleak **Txema** eta **Resu** izan dira, bigarren **Luz M^a** eta **Joserra**, hirugarren **Txema** eta **Elena**. Beste sariketa bat aipatzearren, iaz bezala aurten ere **Karmele Igartuaren** kurtzabarriko ikasleek Komunitate Autonomo mailan egiten den deklamazio saria irabazi dute.

Hirugarren Munduko Taldeak izen barria jarri diote euren taldeari. Hemendik aurrera **"Zuzen"** izango da Atxabaltako hirugarren mundu taldearen izena. Gauza jakina da talde honen lan nagusietako bat Aretxabaleta-Unai proiektua dela. Proiektu hori Indian aurrera eramaten ari den **Inazio**


Galdos jesuita atxabaltarra gure artean daukagu hilabete honetan. Orain dela bi urte adivasi etniakoekin etorri zen, baina aurten bakarrik etorri da. Hitzaldi bat ere emango ei du bueltatu baino lehen.

Euskararen Eguna prestatzen ari da Beinke hilaren 19rako, urtero moduan. Aurten, nobedade bat: Pastoraltxoa. Goñiko Udalekuetan dabilzan begiraleek egindako Pastoral txikia eskainiko da herriko plazan. Tartean, aktore atxabaltarrak daude: **Arrate Arkauz**, **Eneka Guenetxea**, **Aitor Atxaga**, **Sarasuatarrak**, **Jaione Atxaga**, **Juanan Priego** eta **Oier Garziaetxabe**.

Kiroletan ere badaukagu izen aipagarriarik. Arrasateko Zaldibarko futbol txapelketan Trikiti taldeak irabazi zuen, eta talde honetan hiru atxabaltar daude:

Rafa Etxeandia, **Fito** eta **Piti**. 'Hiru haundietan' ere baditugu protagonista atxabaltarrak. **Jabier Etxebarrieta** '**Patás**', **Eneka Guenetxea** (gaur doblete), **Juan Urkia**, **Ibon San Migel**, **Oier Etxebarria**, **Javi del Fresno** eta **Vitoriano Rivierak** Gorbea-Anboto-Aizkorri egin zuten egun batean.

KOMIKIA



13 DOMEKA

• Zاراia Mendi Taldearen urteera: **eskolarteko finalisten eguna.**

• Murruxiko Mendizale Elkartearen urteera: **Zekilaga.**

• Zikloturisten urteera: **Aretxabaleta - Narbaxa - Olazagutia - Urbasa - Narbaxa - Aretxabaleta.** (100 Km)

17 EGUENA

• Argazkilari taldea

sortzeko batzarra, arratsaldeko 7etan Kultur-etxeko Bideo Gelan.

19 ZAPATUA

• Udaleku irtekietan apuntatutako monitoreren azterketa. Goizeko 9,30etan Kultur-Etxean.


• Euskeraren eguna: **Beinkek antolatuta.**



20 DOMEKA

• Murruxiko Mendizale Elkartearekin, **men-di garbiketa.**

• Zاراia Mendi taldearen urteera: **Eliza-teak. 1.go atala. II. argazki rallya.**



• Zikloturisten urteera: **Aretxabaleta - Narbaxa - Olazagutia - Urbasa - Narbaxa - Aretxabaleta.** (130 Km).

23 EGUAZTENA

• **San Juan bezpera.** (Ikus egitarau berezia).

ARETXAZOKA

Lana

• 8. mailako haur bati, klase partikularrak emateko pertsona bat behar da. Tfnoa: 79 05 26.

• Alemaneko klaseak emango dira, ekainetik aurrera astelehenerik ostiralera. 10 urtetik gorakoentzat. Intesatuak deitu 79 95 88 zenbaki-
ra.

Salerosketak

• Pisu bat alkilatzea gura nuke eta guztiz utsa baldin badago hobeto. Gauetan deitu telefono honetara: 77 11 22.

• Pisu bat saltzen da. Interesatuak telefono honetara deitu: 79 07 36.

• Lur azpiko garaje bat saltzen da. Interesatuak telefono honetara deitu: 79 86 72.

Salerosketak

• Pisu bat alokatzeko dago. Interesatuok telefono honetara deitu: 79 40 19.

• Atxabaltan pisu bat alkilatzea gura nuke. Lo egiteko aukera bakarrik. Tfnoa: 79 59 78.

• Vespa motorra SS-V salgai. Tfnoa: 79 91 41

Denetarik

• Aliantza bat galdu da. L.L inizialekin eta 31 - X - 35 dataekin. Aurkitzen duenak daitu telefono hauetako batera: 79 99 11 edo 79 01 05.

• Galdutako motxila bat aurkitzen da Udaltxean, barruan giltza batzuk dauzka. Jabea pasa dadila Udaletxetik, Udaltzaingoen bulegotik.

SEAT

GARAJE OSKAR
 Basabe poligonoa
 A - 2 - 4
 Tfnoa: 79 98 74

ZARAIA TABERNA
 GOIZEKO 5,30etatik
 ZURE ZERBITZUAN

 MANTEKA
 ANAIK

BASABE JATETXEA
 Menu eta afariak
 industrialdea
ARETXABALETA
 Tfnoa: 77 07 94
 79 91 84

ITURGINTZA


 Tfnoak: 79 07 34
 79 31 87

ARLUTZ
TABERNA

 Mitarte, 16 ARETXABALETA Tfnoa: 79 32 34


HAIZEA AKEITEGIA

 Mitarte Kalea, Z/G
 Tfnoa: 79 85 57


T X I L T A R R A

ELIKADURA BEREZIA
 Durana, 35
 Tfnoa: 79 10 15

 Loramendi, 9
 Tfnoa: 79 44 28

 ARETXABALETA

Zatuz ezagutzera ZUHAITZ jatetxea!

 BAZKARI ETA AFARI ONENAK!!!
 Tfnoa: 71 46 08
GATZAGAN


IRAKASLE ESKOLA
 Eskoriatza
 Gipuzkoa


 Magisterio Eskola honek zera jakinarazten du:
1993-94 Ikasturterako aurreinskripzio epea zabalik dagoela.
Espezialitatea:

- Haur-Eskola
- Euskal Filologia
- Ingeles Filologia

Informazioa
 Irakasle Eskola. Tfnoa: (943) 71 41 57

 **MASAILARIK**
MASAIK ZARAIA
 MASAIK eta
 OSTEOPATIA
 Loramendi 13 - 1-A
 Tfnoa: 79 71 55

IBARRA ESTANKOA

Tabakoa eta ikasmateriala

 Bizkaia, 3
 Tfnoa: 79 23 77

"HERRASTI "
AKEITA ETXEA

 Aralar Kalea, 7
 Tfnoa: 79 32 83

NERIAN
 Loradenda
 Otalora, 14 behea
 Tfnoa: 79 70 66



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Zatoz %7ko Superlibretaren abantailak ezagutzera.

Superlibreta, duen errentagarritasun handiak eta sinpletasunak bereizten du. Baina, zuk, gainera, jakin beharko zenuke...

- helbideratze guztiak onartzen dituela: nomina, pentsioa, ordainagiriak, kontribuzioak, e.a.
- kobruak, ordainketak eta eskudiruaren erabilerak formaliza daitezkeela gure edozein sukurtsaletan.
- kutxazain automatikoetan eragiketak egin eta dendetan ordaintzeko ServiRed Visa Txartela dohainik lor daitezkeela.
- ez duela komisiorik.
- interesak egunero kalkulatu eta azaroaren 30ean ordaintzen direla denak batera.
- urteko interes finkoa, UTBa, %7,15ekoa dela 100.000 pta.tik gorako saldoetan, eta %0,10ekoa kopuru hori baino saldo txikiagoetan.
- Euskadiko Kutxaren ohizko libreta Superlibretaz aldatzea oso erraza dela, helbideraketa, txartel eta abarri ez baitie eragiten. Bakar-bakarrik libreta aldatzen da.